Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain
zuzendariari@jalgi.com
943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari

Sanjoanetan, errespetatu itzazue animaliak

Arrasateko Udalak etxe guztietara bidali duen herriko jaien programan jasotzen denez, ekainaren 19an, larunbata, «Kaiolako usakumeen II. tiroketa» egingo da San Kristobal kanposantuaren ondoan, Leintze ehiza eta arrantza-elkarteak antolatuta.

Behin eta berriz esan dugu ehizamota guztien aurka gaudela. Badirudi usakumeen tiroketa ehiza eta arrantza-elkarteek «kirola» izena ematen diotena praktikatzeko era *modernoagoa* dela, gaurkoa.

Animaliei sofrimendua sortzen zaie, eta kalte moral hori ehizaren edo animalia biziak tirokatze-modalitate guztietan sortzen da.

Ehiztariek beren jarduera behin baino gehiagotan justifikatzen dute, kirola egitea dela esanez. Ehiztari askok esaten dute, hiltzea baino gehiago, mendian gora eta behera ibiltzea gustatzen zaiela. Usakume tiroketan parte hartzen duten Leintzeko ehiztariei kirola iruditzen ote zaie San Kristobaleko kanposantu berriaren ondoan zenbait ordu tiro egiten eta hiltzen ematea?

Usakumeen tiroketa, Leintzek ez ezik, Udalak ere antolatu du. Bada garaia udal-taldeek animaliei buruzko kode etiko bat zehaztu eta zabaltzeko eta, ondorioz, animaliei beharrezkoa ez den sofrimendua ebitatzeko.

Beharbada, herritarrok pentsatzen hasi beharko genuke ez garela ez aingeruak ez konputagailuak, animaliak baizik. Animaliak ezagutzeak gu geu ezagutzeko balio duela. Animaliak garela onartzea gainerako biosferarekin harreman arduratsua izateko oinarri-oinarrizko dela. Hausnarketa honetan, benetan irakurtzea gomendatzen dizugun Jesus Mosterinen *Vivan los animales* liburu interesgarriak lagun diezaguke. **Mikel Olabe** • *Ekologistak Martxan-Eki taldearen izenean* • ARRASATE (GIPUZKOA)



KILIKA / HERRIA

Denontzat edo inorentzat ez

Hauteskundeak pasa dira eta orain emaitzen ondorioak aztertzeko momentua heldu da. Batuketak eta kenketak egiteko garaia, beraz.

EAEn, abertzaleak nagusi atera dira, eta espainiarrak gutxiengo. Azken horiek aspalditik dabiltza, gutxiengoak izanik, gehiengoa balira bezala hitz egiten. Inposaketaz hitz egiten dute, abertzaleek euskal kultura eta proiektu nazionala inposatu nahi dutela eta gutxiengo direnen izaera ez dela errespetatuko esanez, eta ondorioz kultur aniztasunaz, pluraltasunaz, gutxiengoarenganako errespetuaz, eskubideez... dihardute etengabe.

Nafarroan, alderdi espainiarrak nagusi geratu dira eta euskal nortasunaren aldeko alderdiak gutxiengo. Baina EAEn errespetua eskatzen duten berberak Nafarroan fronte konstituzional bat eratzen ari dira euskal nortasuna gelditzeko eta txikitzeko. Hipokritak. Gutxiengoa direnean errespetua eskatu, eta gehiengoa direnean inposaketa hutsa. (Bestela Aragoi eta Asturias-era begiratuz ikus daiteke zein errespetu gutxi dioten bertako kultura eta hizkuntza minorizatuei).

Nik argi daukat negoziatu beharreko gauza garrantzitsu bat. EAEn gutxiengoak errespetatuko badira, Nafarroan exijitu beharko da errespetu bera. Beraz, Hego Euskal Herriko politikariek badute nondik hasi hitz egiten, errespetua denontzat edo inorentzat ez. **Oinar Vitores** • PORTUGALETE (BIZKAIA)

galdeiozu...



Pepe Rei
KAZETARIA

Euskadiko kontrabando sareak izan al du eraginik Euskal Herriko politikagintzan?

Andoni Oiarbide [Legorreta]

■ **HORI ARGI DAGO.** Hain garbi dago, ezen auzitegietan ere jasota dago. Donostiako epaitegi batean lehenengo instrukzioan jasotzen denez, Euskal Herrian droga sartzen zen euskal gazteria zigortzeko, haiek mugimendu independentistari ematen zioten babesa zela eta. Orduan, droga eta droga-sareak arma politiko bat izan ziren, Estatuak Euskal Herriaren aurka erabilitako arma politiko bat. Eta hori dokumentatuta dago.

Ekainaren 22tik aurrera
Eneko Olasagasti
• AKTOREA
izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

